



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzen duen eta eskubide hau betetzeko moduak eta exijitzeko baldintzak definitzen dituen Etxebizitza Legea onartu da, lege aurrerakoaia, eta bere osotasunean garatu beharra dago.

Herritarrek sufritu izan dituzten bi gaitz ditugu oraindik konpondu gabe, etxe kaleratze kasuak eta IRPH indizeak

aplikatu izanak sortu dituzten kalteak. Behingoz, egoera injustu hauekin amaitu beharra daukagu. EAEn 250.000 pertsonen dute etxebizitza tenperatura maila egokian mantentzeko zailtasuna eta 40.000 pertsonen jasan dituzte gasaren, uraren, argindarraren edo telefonoaren mozketak. Hau ez da inolaz ere onargarria!

HELBURUAK

Onartuta dagoen Etxebizitza Legea garatzea izango da gure lehentasuna, bere osotasunean, eta hainbat gaitan, prestazioei dagokienean adibidez, kontu handiz garatu beharrekoak, orain arte prestazioak jaso dituztenei ez diezaieten inolako murrizketarik suposatu.

Baina legearen eztabaidan planteatu genituen hainbat neurri, legean jaso ez zirenak, legea hobetzeko eztabaidagai jarriko ditugu berriz.

NEURRIAK

1

Etxebizitza legea bere osotasunean garatu beharra dago.

Etxebizitza gaitan esku hartzen duten sozietate eta erakundeak bilduko dituen erakunde autonomoa sortu, etxebizitza politikari dagokion guztia erakunde bakar batek kudeatu dezan.

Parke publikoa osatzen duten saldu gabeko etxebizitza guztiak alokairura bideratu, eta hori gauzatu ahal izateko herriekin hitzarmenak bultzatu.

Eroslehenetasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritu.

Etxebizitza hutsen kanona arautu.

Etxebizitza hutsen errolda osatu, alokairu publikoaren merkatuan mugiarazteko helburuarekin.



Etxebizitza legearen eztabaidan planteatu genituen hainbat neurri, baina legean jaso ez zirenak, berriz eztabaidagai jarriko ditugu legea hobetzeko asmoz.

Diru publikoz egingo diren etxe guztiak alokairura bideratuko dira lehen egunetik.

Etxea alokairuan eskuratzeko jendeari eskatzen zaio gutxienezko diru sarrera kendu egin behar da, behar larrienak dituztenak bizitokia izateko aukerarik gabe ez uzteko.

Alokairu soziala eramangarria izateko baldintzak moldatuko ditugu: inork ez dezala ordaindu diru sarreren %30 baino gehiago, eta %15 baino gehiago lanbideen arteko soldatatik behera kobratzen dutenen kasuan.

Legean integratuko eta berrantolatuko ditugu etxebizitzari lotutako laguntzak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.

Okupazioa zigortzen dituen atalak berraztertu.

Esleitu barik dauden etxebizitzak alokairu publikora bideratu, udalekin hitzarmen zehatzak sinatuz.



Etxe kaleratzerik gabeko Euskal Herria Lege bitartez arautuko dugu

Jabegoan etxea eskuratzen dituztenen kaleratzea eta bankuen aurrean etxetik kanporatuak ez izateko hartu beharreko neurriak

Atzeraeraginezko izaerarekin etxebizitza ordainean ematea arautuko dugu, hau da, bankuak hasitako prozedura baten ondorioz ohizko etxebizitza galdu duten familia guztiak gainerako zorra ordaintzetik libratzea.

Bigarren aukeren lege bat idatziko dugu, Bankuen praktika onen kodea jasoko duena baita ere, kapitalaren ordainketan eteteak, kitak edo ordainean ematearekin batera alokairu soziala aurreikusten duten neurriak bezalakoak indarrean jarritz.

Alokabideren bitartez alokairuan maizterrei ezartzen zaizkien baldintzak, ematen ari diren kaleratze kasu ugariak,... parke publikoko etxeetan alokairuarekin sortzen ari diren arazoak mugatu behar dira.



IRPH indize manipulagarri eta ez-gardenarekin amaitzeko beharrezko neurri guztiak hartuko ditugu. Baita sortu dituen kalteak konpentsatzeko ere.

IRPHa etxebizitza maileguetarako erreferentzia indize ofizial bezala bertan behera utzi dezatela eskatu.

IRPHa edozein aldaeratan aplikatu duten, edota aplikatzen jarraitzen duten, banketxeei, berehala aplikatzeari uztea eskatu.

Indize horren arabera kobraturiko interes guztiak kontsumitzaileei itzuliak izan daitezen eskatu.

Indize honi loturiko maileguen exekuzioen ondorioz desjabeturiko etxebizitzak dagokionari itzuliak izan daitezela eskatu.



Politika fiskalean aldaketak proposatu, jabetza lehenesten baitu alokairuaren aurrean.



Etxebizitza tenperatura maila egokian mantentzeko zailtasuna dutenentzat eta gasaren, uraren, argindarraren edo telefonoaren mozketak jasan dituztenentzat diru-laguntzak bermatuko ditugu..